

# MULISKO

Jentilen hilerriak

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en  
topatuko duzu  
ibilaldi hau

GnatKonekta



## Sarbidea

Besadegi ingurutik, GI-4721 errepidearen amaieran, Urnietako udal mugartean.

## Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako

oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.



1 de 7



Gnaturaldia  
Konekta

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumena eta Obra  
Hidraulikotako Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro

# MULISKO

## Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Urnietan dago, azkeneko zatia izan ezik, zeina Urnieta eta Hernani arteko mugan igarotzen baita. Trintxalekueta eta Arlegor gainetako medi hegaletan trazatutako baso pistak zeharkatuko ditugu, baita Zorrotzarri eta Oindi hegoaldekoak ere, Adarramendi-Mandoegi mendilerroaren iparraldeko muturrean.



Trazatuaren parte bat Zulueta munitik zehar igarotzen den bidean egingo dugu, zeinak garai batetik lotzen baititu Urnieta eta Hernaniko Urumea haranak, eta, beste zati eder batean, SL-GI-43 kodearekin homologatutako bidezidorrean ibiliko gara. Ibilbide osoak hareharrri burdintsu arrosakarak dituzten lurak zeharkatzen ditu, guztiak ere Bortzirietako Mendi Paleozoikoari dagozkionak.

Gure ibilian, nekazaritza ustiategiak, nekazaritzako garai bateko soroak eta belardiak zeharkatuko ditugu, guztia ere larre zainduak, berriro ere konifera sartutako sail itxiak eta bertako hostozabalak zeharkatuz. Ibilbidea amaitzeko, Mulisko Gaina ehorzketa multzo protohistoriko enigmatiko eta paregabearen agertuko gara.



## Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

*Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.*

Besadegi landa nukleoko plazatik abiatuturik (WPI), izen bera duen taberna-jatetxearen parean hasten den pistari helduko diogu, lizar sorta zahar batek inguratuturik ageri den informazio gune txiki eta egonlekuaren parean.

Bidearen hasieran, baratzeak, sagastiak eta larrerako eta segatarako zelaiak igaroko ditugu, eta, aurrera goazen neurrian, garai bateko larre eta garo sailetatik

**B**esadegi alde hau bikain kokaturik dago Urnieta haranaren eta Adarramendi tontorraren artean. Ardiak, behiak eta zaldiak udaberrian sailean mendira igotzeko bidean zihoazenez mendez mendez baliatu izan dute erreferentzia puntu, elkargune eta harremanetarako toki gisa. Eta beste horrenbeste goi mendietan uda eman ostean, udazken partean, atzera baserrira bueltan ekartzen zituztenean ere. Halaber, hantxe elkartzen ziren garoa ebakitzeko egunean -Arrapazkako Eguna deitua-. Udazken garaian izaten zen, eta, oraindik oraintsura arte, baserriek musu truk eskura zezaketen Urnietako Auzo Mendietan, ganaduei azpiak egiteko erabiltzeko, eta, ondoren, ongarri bezala baliatzeko, zimaurrek tegietatik atera ostean.

## Waypoint (WP)



1. Irteera

# MULISKO

–pagadi koskor bat duen tartean izan ezik–. Sail haietan, nahas-mahas eta ugari ageri dira otea, sasiakaziak, haritzak, urkiak eta sastrakak, baita sasiarte eta otadi itxiak ere.

**G**arai batean, ohikoa zen abeltzaintzako eta artzaintzako establezimenduak lizardiz hornitzea, uda partean itzal ederra egiten baitzuten, eta orri oparoak ematen, abereak elikatzeke. Udazken oro, inausi egiten zituzten: orriak ganadu janetarako baliatzen zituzten, eta adar hostogabetuak, berriz, su egurretarako, itxiturak egiteko eta abarretarako. Tradizioak dioenez, lizarrak uxatu egiten ditu tximistak, eta udako solstizioan, sanjoanetan, lizar egurrez egindako gurutzeekin apaintzen zituzten baserri, txabola eta bordetako leihoak eta atek.

Bide horretan, langa bat zeharkatu ondoren (WP 2) –gogoratu aurkitu dugun moduan utzi beharko dugula–, Ondarriturrieta errekaetara igaroko dugu (ura ez da edangarria). Pozontarri (WP 3) baserriaren hondarretara iritsiko gara, zeina aurri egoeran baitago XX. mendeko 60ko hamarkadaren erdi aldera suak erre ostetik. Baserri ingurua lizar zahar batzuk eta berriro landatutako pagoek apaindurik ageri da (WP 4).

Nekazaritza asentamendu zahar horren paretik igarotzean, merezi du begiratu bat ematea larre ikusgarri bat inguratzen duen harri lehorrez eginiko murru lerroari, goazela eskuinetan eta tarte eder batean zehar. Arkitektura

**H**arri lehorrez eginiko itxiturok –hau da, harria harriaren gainean ipinita, argamasarik eta batzeko materialik gabe– zaintzen duen lursailetik hartutako harriz eginak dira, ia batere erremintarik gabe, egunez egun, bertan abereak biltzeko eta elikaturik edukitzeko espazio egoki bat edukitze aldera. Lurra soildu eta zopizartu ostean –eskuz edo etxabereen laguntzarekin–, blokeak eta lauzak lurretik ateratzen ziren, eta behar zen tokira eraman eta pilatzen, bai eskuz, bai lerak erabiliz, edota mandoen edo astoen laguntzarekin, markatutako perimetro osoan zehar. Ondoren, zanga txiki batean abiaburua oinarritu ondoren, aditu batek, hainbat laguntzailerekin –maiz aprendizak–, garai bateko teknikei jarraituz ipintzen zituzten.



tradizionaleko obra paregabe horixe da mendi inguru honetan bizirik jarraitzen duen bakanetako bat, eta gaur egun desagerturik dauden bitzta tekniken eta formen lekukotza dugu.

## Waypoint (WP)



2. Langa



3. Pozontarri baserria



4. Panoramika



# MULISKO

Baserriaren hondarrak gaintitu eta handik pixka batera, hegalaren kontrako tartearak –garai batean larre estentsibo gisa baliatua, batere arbolarik gabea– egundoko ikuspegia eskaintzen digu Urumea haranaren eta inguruen gainean. Merezi du geldialditxo bat egin eta inguruak mirestea: Hernani, Urnieta, Donostia, Astigarraga, Hernio gainak, Pagoeta, Belkoain, Andatza, Buruntza, Santa Barbara, Oriamendi, Igeldo, Urgull, Ulia, Jaizkibel, Santiagomendi, Jaizkibel, Oindi, itsasertza...

**P**araje estrategiko horixe izan da, mende luzeetan, urtarotako mugimenduen funtsezko bide ardatza, bertan elkartzen baitziren Urnieta, Hernani eta inguruko negu larreetatik Adarramendi gainetara uda partean igotzen zirenak, eta alderantziz. Horretaz gainera, beti izan da inguruan duen Zuloeta baserriko pasabide –artzaintzan eta abeltzaintzan sona handiko baserria, gaur egun abandonatua–, eta bertatik igarotzen zen Bezkita, Olazar eta Olaberri burdinola hidraulikoetara joateko ere –gaur egun baserriak dira, Urnietako udal mugarteko paraje urrunenean kokatuak, Urumea haranean–.

Berriro ere martxari helduta, handik pixka batera langa kanadiar edo bideko parrila bat topatuko dugu. Saretan erortzeak eragingo lukeen endredoa saihesteko, alboko atetilatik igaroko gara, eta kontu hartuko dugu igaro ostean itxita uzteko.

Animaliei eusteko neurri hori igaro ondoren, ezkerretara irekitzen den pista albo batera utzirik (WP 5),



parez pare jarraituko dugu. Malda labur bat igo ondoren, Zuloetako Lepoa igaroko dugu, zeinak tankera bereko beste barrera bat baitauka, atetila eta guzti hori ere (WP 6), bi pago gorri eder dituela albo banatan.

Inguru horretan eta gure ezkerretan agertzen diren goi hegaletan –Zorroztarri izena dute–, baita mendiaren gailurra Oindi mendiaren maila berean zeharkatzen duen suebakian ere, bertako abereen larreak daude azkeneko urteetan. Hori dela eta, ez da harritzekoa izango bidean goazela betizuak, pottokak edo ardi latxak topatzea ingurumari horietan.

Animalia horiek aske aritzen dira larrean, eta ohiturik daude gizakiekin. Edonola ere, oso zorrotza dute defentsarako sena; hortaz, oinez ibiltzeko arazorik ez badago ere, gomendatzen dugu bakean uztea eta ez erakartzea jaten eman aitzakian, eta are


## Waypoint (WP)



5. Bidegurutzean, aurrera



6. Langa



**P**ozontarriko Lepoa izeneko trikuharria 1950ean aurkitu zuten, eta 1965ean induskatu. Suharrizko sei gezi punta eta zeramikazko edalontzi baten zatiak topatu zituzten. Onyi-Mandogiko Estazio Megalitikoko monumentu multzoan inskribaturik dago. Trikuharriak edo jentil harriak artzain tradizioko taldeek eraikitako ehorzleku kolektiboak dira, Neolitikoaren amaieratik aurrera sortuak Kobre eta Brontze Aroetan –orain 5.000 eta 3.000 urte inguru, alegia-. Bakarka altxaturik, traza laukizuzena duten eta ehorzleku gisa baliatzen ziren hileta ganberak dira, arbastatu gabeko bloke handiz eraikiak; batzuetan, barrena lauzaz berdinduta edukitzen dute, erabat estalia tumulu batekin edo oinarri zirkularreko harri eta lurren metatze antolatu batekin. Sarkofago horien barrualdean, hildakoak ehorzten zituzten, bizi zirelarik baliatu ohi zituzten objektuekin eta ofrendekin batera, egiazko panteoiak osatuz. Tradizioak pertsonaia mitologikoen ehorzleku gisa azaldu izan ditu. Kondaira ugari sortu izan da haien gainean, eta aspaldidanik nahastu izan dituzte, altxorak lurperatzen zituztela uste izanaren ondorioz. Jentilak euskal mitologiako pertsonaiak dira, zeinak mendietan bizi baitziren, leizeetan ezkutaturik. Egundoko indarra zuten, eta sekulako harrizarrak jaurtitzen omen zituzten urrunera jolas moduan, eta, inoiz edo behin, «kristauak» uxatzeko ere bai.

gutxiago aztoratzea. Ez baitago aurreikusterik zer erreakzio izango duten.

Puntu horretan, berriki zelaian barrena trazaturiko bidean jarraitu dezakegu, baina, haietan larrean ibiltzen diren animaliei alferrikako endredorik ez sortzeko eta markatzen ari den aztarna sakona ez areagotzeko, atetila zeharkatu eta pistatik barrena jarraituko dugu. Pista hori orain 75 urte baino gehiago trazatua da, garai bateko bide baten gainean, eta jomuga ditugun gainetara ematen du.

Atetila zeharkatu eta ahaztu aurretik itxi ondoren, larrearen paretik poliki-poliki igotzen den pistatik jarraituko dugu, zedro japoniarrez eta itsas pinuz osaturiko ilara baten artetik, bertako hostozabalak ere tarteka-marteka dituztela, urkiak eta haritzak, hain justu. Handik pixka batera, harizti oparo batean sartuko gara –aipatu dugunaren tankerako birlandatze baten emaitza, koniferak bakandu ostean–.



## Waypoint (WP)



7. Bidegurutzean, ezkererra



8. Metalezko langa, pistan jarrai



Bidegurutze batera iritsi ondoren, ezkerretara hartu (WP 7) eta hareharrizko geruza sail estratifikatu baten gainetik jarraituko dugu, harik eta berehalaxe metalezko ate batekin topo egin arte (WP 8).

Bizisarobe edo Bixixa izeneko muinoan agertuko gara, Zorroztarri eta Oindi gainen artean. Hantxe dago Pozontarriko



# MULISKO

**B**asurdeari lokatzetan bueltaka ibiltzea gustatzen zaio: erregulazio termikoa ez ezik, parasitoak kanporatzea ere lortzen du hala. «Bainatzeko» toki horien inguruan, ohikoa izaten da arbolen enborrak hazka eginda markaturik topatzea: garbiketarako osagarri ez ezik, lurraldea markatzeko ere baliatzen du. Maiz topatu izan dira, halaber, basurdearen zurda nahasezinak, luze-luzeak eta gogorak, baita betortz zorrotzekin egindako markak ere.

Lepoa izenarekin katalogatutako trikuharria. Ehorzleku megalitiko hori bisitatzeko, kontu bakarra hartu beharko dugu: ondo itxita uztea bertara ematen duen zelaira sartzeko atea.

Berrito ere bideari heldurik, etorri garen tokitik aurrera jarraituko dugu, ia-ia desnibelik gabe. Lehen aipatu dugunaren moduko konifera birlandatze misto bat zeharkatuko dugu. Tipi-tapa goazela, ez dugu traba handirik topatuko, asko jota basurdeek bainuontzi gisa baliatutako putzuren bat, batzuetan baso igel gorrien arrautzaz beteta. Hala, Pagoluzeta irtengunera iritsiko gara, tradizionalki Kanposantu Zaharra izenez ezaguna. Urnieta eta Hernani arteko mugan dago, eta hantxe ikusiko dugu Mulisko Gaina multzo megalitiko enigmatikoa (WP 9).

Mulisko Gaineko multzo megalitiko da Euskal Herriko harrigarrienetako bat. Lau cromlechek osatua da, neurri ikusgarriko hainbat harririkin: ganbera bikoitzeko zista harrigarri bat eta monolito bat, baita definitzen samurrak ez diren beste hainbat hondar ere.

Kokaleku ikusgarriak eta hileta arkitekturaren bikaintasunak mirespen eta handitasunez kargaturiko ikuskizun arranditsu bilakatzen dute bisitaldi hau, modu erabat harrigarrian ageri baitira ebakita, buelta guztian irekitzen diren sakanez eta mendiez



## Waypoint (WP)



9. Mulisko multzo megalitiko

10. Helmuga

**1** 956an aurkitu zuten, eta erabat ahazturik egon zen 20 urtean. Joan den mendeko 70eko hamarkada amaieran garatutako ikerketa eta balioztatze lanak erabakigarriak izan ziren multzoa gaur egun ikusten dugun moduan konfiguratzeko (Kanposantu Zaharra toponimoa bizirik gorde izanak ere lagundu zuen horretan), eta lan horiek guztiak baliagarriak izan ziren multzoa gordetzeko eta kontserbatzeko. 1983 eta 1985 bitartean egindako indusketa arkeologikoak egiaztatu zuen Burdina Arokoa dela (Kristo aurreko VII. mendea), eta hainbat osagai berrezarri zituzten. Era berean, bertako arbolak ere landatu zituzten buelta guztian. Onyi-Mandoeigiko Estazio Megalitiko monumentu multzoan inskribaturik dago. Ekonomiaren oinarria abeltzaintzan zuten komunitateek eraikiak dira, Brontze Aroaren amaieratik hasi eta Burdina Aro osoan zehar (gure aroaren aurreko lehen milurtekoak zehar, alegia). Cromlechak edo lurtean sarturiko harriz egindako zirkuluak, baratze, jentil baratze edo mairu baratze izenez ezagutzen dira: haien barruan, eraikinetik urrunago erretako hildakoen errautsak gordetzen dituzte.

Barrutiak lurraren arrasean edo harriz eta lurrez beteta izan ohi dituzte. Nahiz eta ohikoa izan isolaturik agertzea, oro har, zenbait eratako multzoak osatu izan dituzte (hainbat neurri eta eraketakoak), eta gerta liteke zirkuluak bereizita, elkarren segidan edo binaka-binaka elkarri loturik agertzea.

Era berean, zistak osatzen dituzte, trikuharrien antzeko arkitektura antzekoa dutenak baina proportzio txikiagokoak, bai eta iruinarrak altxatu ere (lurrean sartutako monolito bertikalak). Funtzio eta esanahi ezezaguna dute, eta herri memoriak pertsonaia mitologikoekin lotzen du haien eraketa; hala, jentil harri izenez ere deitzen dira.



# MULISKO

osaturiko horizonte harrigarrian. Ikuspegi horrek, fantasian murgiltzeko gonbita egiten digu, urrun ditugun garaietara hegan egiteko, gizakiak eta naturak batasun zatiezina osatzen zuten garai haietara.

Mirestekoa da parean ageri zaigun ikuspegia, Urumeara ematen duen Etxolaberri sakana, birlandatzeek

eta baso autoktonoen zatiek osatzen duten mosaikoa oinetan dugula: Oiartzungo mendiak eta Arano, eta han-hemenka diren biztanle guneak, baita hainbat mendilerro ere, hala nola Adarramendi, Hernio, Izarraitz...

Parajeok miresten eta gozatzen hainbat minutu eman ondoren, atzera lehengo bidetik bueltatuko

gara. Kontu hartuko dugu guztia zegoen bezala uzteko. Ahalegina eta bizipena gozatuko ditugu, eta ibilaldi gehiagotarako planak egingo ditugu, gure geografian bertatik bertara eta aldi berean aldendurik ditugun parajeok ezagutzeko. Eta, pentsakizun horiekin gabiltzala, zailtasunik gabe bueltatuko gara Besadegi aldera, abiatu garen tokira (6,3 km).



*Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.*



[gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta](http://gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta)

7 de 7

**Gnaturaldia**  
**konekta**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumena eta Oribi  
Hidraulikotasun Departamentua



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro